

# MAKE-UP MACHINE

## 5. KANALAK

### BANAKETA KANALAK

MakeUp Machine jendearengana ahalik eta modu errazenean iristea da gure helburua. Horregatik, hainbat banaketa-kanal erabiliko ditugu, erabiltzaileen eguneroko ohituretara egokituta. Alde batetik, zuzeneko salmenta egingo dugu, bai online bai aurrez aurre. Webgunearen bidez, edonork etxetik erosi ahal izango du makina lasai-lasai, eta, noizean behin, pop-up guneeetan edo ekitaldietan presentzia fisikoa ere izango dugu, jendeak produktua bertatik bertara ikusi eta probatu ahal izan dezan.



Horrez gain, puntu estrategikoetan egongo gara, jendea ohituta dagoen lekuetan. Vending makinaren bidez edo zerbitzu publikoko espazioetan (merkataritza-guneak, aireportuak, ospitaleak...), MakeUp Machine ikusgai jarriko dugu, produktuaren erabilgarritasuna momentuan bertan ulertzeko moduan.

Azkenik, denda espezializatuekin lan egingo dugu. Salmenta-talde baten bidez, kosmetika-dendekin eta ile-apaindegiekin hitzarmenak sinatuko ditugu, hala nola Sephora edo tokiko apaindegiekin. Denda horietan, gure makina erakuslehoan edo zerbitzu osagarri gisa egongo da, bezeroek esperientzia desberdin eta berritzaile bat bizi dezaten.




# MAKE-UP MACHINE

## 5. KANALAK

### KOMUNIKAZIO KANALAK (SEGMENTUKA)

MakeUp Machine-ren komunikazioa pertsonetan pentsatuta dago, eta horregatik ez diegu guztiei gauza bera modu berean esango. Segmentu bakoitzari egokitutako tonu eta kanalak erabiliko ditugu.

Sare sozialetan denbora asko ematen duten gazteentzat, Instagram, TikTok eta YouTube izango dira gure kanal nagusiak. Influencer eta mikro-influencerrek bideo labur eta naturalak egingo dituzte, makina nola erabiltzen den erakutsiz eta emaitza politak lortzen direla ikus dadin. Helburua ez da saltzea bakarrik, baizik eta jendeak identifikatzea eta “nik ere probatu nahi dut” pentsatzea.



Makillajearekin lotura emozionala duten pertsonentzat, mezu hurbil eta inklusiboak erabiliko ditugu. Gure komunikazioan argi utziko dugu denek dutela eder sentitzeko eskubidea, eta horretarako benetako istorioak kontatuko ditugu, adibidez ikusmen-arazoak dituzten pertsonen MakeUp Machine-rekin nola moldatzen diren erakutsiz. Bideo laburrak eta irudi zainduak erabiliko ditugu, erraz ulertzeko modukoak.

### Makeup Drone: Teknologia eta edertasuna

Makeup Drone edertasunaren eta teknologiaren arteko fusio berritzailea da. Gailu honek makillajea aplikatzeko eta azala aztertzeko aukera ematen du modu automatizatuan eta pertsonalizatuan.

#### Ezaugarriak:

- LED argiztapena
- Azalaren analisi digitala
- Interfaze ukigarria
- Ispilu nagusi eta alboko ispilua

### Irisgarritasun berezia

#### Bideo tutorialak – Egokituta behar bereziak dituztenentzat

Gure gailua pertsona guztientzat da, eta horregatik prestatu ditugu bideo tutorialak irisgarritasun beharrak dituztenentzat:

- Subtituluak euskaraz eta gaztelaniaz
- Zeinu hizkuntza
- Narratzaile pausatua
- Irudi bisualak eta pausoak
- Ikusi bideoak egokituak

Kontaktua: [info@makeupdrone.com](mailto:info@makeupdrone.com)

Webgunea: [www.makeupdrone.com](http://www.makeupdrone.com)

# MAKE-UP MACHINE

## 5. KANALAK

Aurrezkia eta praktikotasuna baloratzen dituzten erabiltzaileentzat, webgunea izango da komunikazio-gune nagusia. Bertan modu oso sinplean azalduko dugu zenbat diru aurreztu daitekeen etxean makillatuz, taulen eta simuladore baten bidez. Segmentu honek datu argiak eta azalpen zuzenak eskertzen ditu.

Esperientzia berriak probatzea gustuko dutenentzat, komunikazioa jolasa eta sormena izango da. AR filtroen bidez koloreak eta estiloak probatu ahal izango dituzte, eta webgunean makillajea gustura pertsonalizatu "Tendentzia" moduan jarriko genukeen. Estilo desberdinak probatzeagatik puntuak edo sari txikiak lortuko dituzte, dibertitzeko eta parte hartzeko.



Home About Contact




**MAKEUP DRONE: TEKNOLOGIA ETA EDERTASUNA**

**TENDENTZIAK**

Komunitatea eta beste pertsona batzuekin partekatzea gustuko duten erabiltzaileentzat, Instagram, Discord edo Facebook taldeak sortuko ditugu. Bertan, bakoitzak bere argazkiak eta bideoak igo ahal izango ditu, erronketan parte hartu eta beste erabiltzaile batzuen iritzia ezagutu. Giro hurbila eta positiboa sortzea da helburua.

Azkenik, MakeUp Machine dagoeneko erosi duten bezeroentzat, email bidezko komunikazio pertsonalizatua erabiliko dugu. Mezu laburrak, bisualak eta benetan interesgarriak bidaliko ditugu, bakoitzaren gustuen arabera: kolore berriak, tutorial erabilgarriak edo gomendio txikiak. Ideia da erabiltzaileak zainduak eta entzunak sentitzea, ez mezu pilaketarekin nekatuak.

### CANALES DE COMUNICACIÓN



Visítanos:  
www.consultoriaconsciente.com

Síguenos en Facebook:  
/caconsultorescolombia

Consultoría Consciente... más  
que una consultoría

Por: CA Consultores